

SORABILLA TRAIL - ARAUDIA - EUS

1.-EGUNA ETA LEKUA

Sorabilla Trail lasterketa, 2026 ko abuztuaren 29an ospatuko da. Irteera 10:30etan izango da. Irteera eta helmuga Sorabillako eliza aurrean izango da.

2.-IBILBIDEA

SORABILLA TRAIL: Sorabilla Trail, Andoain, Aduna eta Zizurkilgo mugetatik igarotzen den mendi lasterketa bat da. 14km eta +600m positibo ditu eta punturik altuena Belkoain da 485m rekin.

3.-ADINA

18 urtez gorako edozeinek parte hartu dezake.

15-17 urte bitartekoek euren tutoreen autorizazioa ekarri beharko du.

Nota:

- Kontuan hartu beharreko aduna korrikalariak 2026ko abenduaren 31n duena
- Saillkapenak osatzeko sexuaren irizpidea NANak adierazten duena izango da.

4.-INSKRIPZIOAK

Prezioa: 20€

*Izena emateko epea: Ekainaren 29tik Abuztuaren 24era (Biak barne): Internet bidez bakarrik. kronoak plataformaren bitartez

*NOTA: Ez da ezeztapen datarik egongo. Eskararen bat egonez gero, talde antolatzaileak kasu bakoitza banan-banan aztertuko luke eta horren inguruko erabaki bat hartuko luke.

5.-SEGURTASUNA

Antolakuntzak Erantzunkizun Zibileko eta Istripuetako aseguru bat izango du. Horrez gain, Gurutze Gorriaren laguntza izango dugu. Antolatzaileek osasun-azterketa egite gomendatzen du. Bakoitzak bere gain hartu beharko ditu kirol jarduerak berak dakartzan arriskuak.

6.-MARKAJEA

Ibilbidea eta kilometro puntuak markatuta eta señalizatuta egongo dira banderín, zinta eta kartelekin.

7.-KONTROL PUNTUAK

Lasterketan zehar, kontrol-gune bat egongo da eta ezinbestekoa izango da puntu hortatik pasatzea. Kontrol gune bakarra egongo da: Belkoain. Ala ere ibilbidea moztu edo markatutako lekuetatik pasatzen ez dena klasifikaziotik at geratuko da.

Kalkulatutako denborak 3orduko muga-denboran helmugara iristeko. Norbait kontrolwtik kanpo geratuko balitz, salbuespenak salbuespen, lasterkariaren ardura izango da helmugara itzultzea.

8.-ANOA-PUNTUA

Helmugaz gain, 2 anoa-puntu egongo dira. Hauetan, edaria eta janaria egongo da parte-hartzaileentzat.

9.-KLASIFIKAZIOA

Kronoak-ekin egingo da kronometrajea, EMF-FVMren araudia erabiliz. Behin sailkapena argitaratuta, 30 min egongo dira erreklamazioak egiteko. Behin denbora hori igarota, sailkapenak ofizialak izango dira.

10.-SARIAK ETA PODIUMA

Klasifikazio generalean lehen hiru emakume zein gizonei emango zaie saria:

1.-Txapela+saria

2.-saria

3.-saria

11.-DORTSALEN BANAKETA

Dorsal eta korrikalarien boltsaren banaketa Sorabillako Elizan izango da.

Ostiralean: 18:00-20:00

Larunbatean (lasterketa egunean): 07:30-09:30

*OHARRA: Korrikalariaren poltsa jasotzera etortzen ez den korrikalariak, bere gaineko eskubide guztiak galtzen ditu. Ez da onartzen etxera bidaltzeko eskaerarik.

12.-INGURUMENA

Lasterketa pistetatik, menditik eta lur partikularretatik igarotzen da. Ingurumena ahalik eta gehien zaintzeko, ez bota zaborrik hornidura guneeetatik kanpo. Horretarako, zabor-poltsak jarriko dira hornidura bakoitzaren ondoren. Hori betetzen ez duen korrikalaria lasterketatik kanpo gera daiteke.

13.-KONTSIGNA

Kontsigna Elizan egongo da.

14.-IBILBIDEAREN SEGURTASUNA

Antolatzaileek eskubidea izango dute ordezeko ibilbide bat egiteko, beharrezko aldaketak egiteko eta lasterketa bertan behera uzteko, eguraldi txarragatik edo beste arrazoi batzuegatik guztiz beharrezkotzat jasotzen badute, aldezturik abisatuko zaie partaideei.

15.-SOROSPENA LASTERKETAN

Parte-hartzaileek ezbeharrak izan duen edozein lasterkerari lagundu beharko diote, eta hurrengo kontrol edo hornidura puntuan berri eman beharko dute.

16.-ARDURA

Izena eman duten parte-hartzaileek borondatez eta beren ardurapean lehiaketan parte hartzen dutela ulertzen dute. Antolatzaileak ez dira parte-hartzaileen objektu pertsonalez arduratzen. Horretarako kontsigna dago. Antolatzaileek ez dituzte beren gain hartuko parte-hartzaileei, laguntzaileei, zaleei nahiz materialei gerta dakizkieteen kalteak, baldin eta galdu edo hondatzen badira erakundeak kontratatutako aseguruaren estalduratik kanpo.

17.-PARTE-HARTZAILEEN MUGA

MUGA: 150

OHARRA: Eskariaren arabera, antolatzaileek diru kopuru horiek aldatzeko eskubide osoa izango dute.

19.-ARAUDIAREN ONARPENA:

Parte-hartzaileek araudi hau onartzen dute proban izena ematen duten momentutik.

INFORMAZIOA: sorabillatrail@gmail.com